

Makina hau mundua hobetzeko erabiliko denez, esan genezake enpresa desberdinei eskaintzen diegula gure produktua. Hau da, mundu osoko enpresa guztiak erosi ahal dute gure produktua. Horretaz gain, gobernuak gure produktua finantzatu edota erosi ahal dute. Horregatik, gure produktua merkatu masiboentzako da. Merkatu publikoa gobernua izango da eta merkatu pribatua enpresak.

Ez dugu enpresa zehatz bati gure zerbitzua eskaintzen, baizik eta mundu osoko enpresei. Honen bidez, CO₂-a murriztea lortuko dugu eta ekodiesel edo inbernaderoetan erabilera ona egingo da Lurraren egoera hobetuz.

Hau esanda, esan genezake bezeroek gehien baloratzen dutena CO₂ isurketaren legea bete egingo dutela. Bestela, CO₂ gehiegi isuri ondoren hainbat multa ordaindu behar izango lukete.